

EAZ EMAKUMEEI ARRETA JURIDIKOA EMATEKO ZERBITZUA

Nafarroako
Gobernua



Gobierno
de Navarra

Instituto Navarro para la Igualdad
Nafarroako Berdintasunerako Institutua

LARRIALDIA GERTATZEN BADA



SOS-NAFARROA

**URTEKO EGUN GUZTIETAN
EGUNEKO 24 ORDUETAN**

BETI egoten da guardiako abokatu bat lokalizatuta, arreta juridikoa eskatzen den Nafarroako edozein tokitara joan behar duena, ahalik eta azkarrena eta erabateko lehentasuna emanda, beste edozeren aurretik.

Arreta emango dizu, indarkeria ekintzen biktima izan bazara edo izateko arrazoizko eta berehalako arriskuan bazaude.

Laguntzak hauek hartzen ditu barnean: orientazioa, aholkularitza eta lagun egitea epaitegietara, osasun etxera, segurtasun gorputz eta indarregana joateko, eta abar.

**EMAKUMEEI ARRETA
JURIDIKOA EMATEKO
ZERBITZUA**

**DOAKO BALIABIDEA DA,
NAFARROAN EMAKUME
GUZTIEI EMATEN
DIENA INFORMAZIOA,
AHOLKULARITZA, LAGUNTZA
ETA ARRETA JURIDIKOA
INDARKERIA KASUETAN.
NAFARROAKO GOBERNUAREN
ZERBITZUA DA.**

ZER DA EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA?

- » Indarkeria **psikologikoa, fisikoa, ekonomikoa** eta **sexuala** bikotekidearengan edo bikotekide ohiarengan, barnean hartuta indarkeriazko ingurunean bizi diren neska-mutikoengan duen eragina.
- » **Sexu** erasoa, sexu gehiegikeria, sexu jazarpena, familiaren, komunitatearen, heziketaren, lanaren arloan egindakoa, eta bai espazio publikoan ere.
- » **Feminizidioa**, genero bereizkerian oinarrituta, emakumeen hilketa baita.

» Beste hauek ere indarkeria erak dira: emakumeen eta neskatoen salerosketa, sexu esplotaziorako, lanerako esplotatzeko edo mirabe-
ezkontzarako; sexu esplotazioa; gazteegitan, hitzartuta edo behartuta ezkonaraztea, emakumezkoen genitalen mutilazioa; eta emakumeen duintasuna, osotasuna edo askatasuna kaltetzen duen edo kaltetu dezakeen beste edozein indarkeria mota.

(Ley Foral 14/2015 para actuar contra la violencia hacia las mujeres)

**GOGOAN IZAN BEHAR DUZU
GERTATU DENA EZ DELA
ZURE ERANTZUKIZUNA;
ERASOTZEN DUENARENA,
BAIZIK.**

AHOLKULARITZA JURIDIKOA BEHAR BADUZU EDO HAUEI BURUZKO INFORMAZIOA...

- » nola prestatu salaketa bat
- » emakumeen kontrako indarkeria
- » emakume izateagatiko bereizkeriarekin lotutako gaiak
- » familia zuzenbidearekin lotutako kontuak: banantze eta dibortzio prozesuak, bikotearen eskubideak eta betebeharrak, mantenu-pentsioak ez ordaintzea, izatezko bikoteak...
- » doako laguntza juridikoa izateko eskubidea

ESKATU ARGIBIDEAK HEMEN:

» Nafarroako abokatuen elkargoetan:



goo.gl/m1a00R

Iruña: T 948 221 475

Lizarra: T 948 556 490

Tafalla: T 948 704 719

Tutera: T 948 825 671

» Genero Indarkeriaren Biktimei Arreta Integrala emateko Lantaldean, Nafarroako Gobernuarena.



goo.gl/bPs5jw

T 848 421 576

Salaketa bat aurkeztu nahi baduzu,
Nafarroan aritzen diren segurtasun gorputz
eta indarregana jo dezakezu. Beti eskatu
behar duzu abokatu batek laguntzeko.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA GEHIAGORIK EZ

**Nafarroako
Gobernua**



**Gobierno
de Navarra**

**Instituto Navarro para la Igualdad
Nafarroako Berdintasunerako Institutua**